

Iturriaga, Maia eta Arzallus bertsoan Diman bagilaren 2an

12. orrialdea

Igorre eta Dimakoak txapeldun

Igorreko Izei Gomezek eta Aitor Zilaurrenen San Trokaz trinkete txapelketako txapeldunak dira promesa mailan.

Dimako Txumulueta eskolako Kimetz Zapikok eta Oier Barreneaxeak, barriz, Eskolarteko Bizkaiko txapela jantzi dabe gaztetxo mailan.

11. orrialdea



Hainbat arratiarrek hartuko dabe parte Hiru Handietan

10. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

165

2012ko bagilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Hamaika eguneko egitaraua Igorreko sanantonioetan

Igorreko San Antonio jaiak gure eremuko herrietako lehenengo jaiak dira eta hasiera emoten deusie udako giro eta bizimoduari.

Betiko moduan, kuadrilak izango dira protagonistak eta euren arteko neurketak ez dira faltako. Londonen baino lehen olinpiadak Igorren izango dira.

Kirolari jagokonean, txirindularitza, ugerketa, rugbya, pelotea, futbito eta frontenisa dagoz jaietako hamaika egunetako programan. Gastronomia eta karta joko txapelketak be egongo dira eta, zelan ez!

kontzertuak eta erromeriak gauean.

Nobedade moduan, jaietako euskera egunean, Intxaurbizkar kultur alkarteak *Euskeraren alde 1000 km baidetz* ekimena antolatu dau. Leku biren arteko kilometroa 1000 bider egitea da desafioa. Igorreko jaiak eta Zeberioko Ermitabari auzuneko jaiak be badira sanantonioak. Han be bost eguneko egitaraua prestatu dabe auzokoak. **5. orrialdea**



IGORRE

Hiri Debekatuaren Mapeari ekin deutso udalak

Andrak gauean leku batzuetan seguru sentiduten ez dirala eta beste leku batzuetako irisgarritasuna hobetu behar dala eretxita, Igorreko Udalak Hiri Debekatuaren Mapeari ekin deutso. Modu parte hartzailean, puntu balzak identifiketako foro bi egin dira eta gero proposamenak egingo dira genero ikuspegia urigintzan sartzeako. **6. orrialdea**



LEMOA

Kazetaritzearen inguruko eztabaida

Euskal hedabideen mundua ondo ezagutzen daben hiru aditu batu zituan Zertu Kultur Elkarteak Lemoan, bere 10. urteurrenaren ekitaldietako baten. Martxelo Otamendi, Berria egunkariaren zuzendaria, Mikel Irizar Topaguneako presidentea eta Maria Gonzalez, Komunikazioan Doktore Europarra, egon ziran euskal hedabideen erronken gainean eztabaidatzen. **8. eta 9. orrialdeak**

E.P.A.
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
bagila osoa.
Tf. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elelalde 22. Eleizako lokaletan

LEMOA

Euskera Planagaz aurrera

Lemoako Euskara Zerbitzuak 2013-2017 epealdirako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) diseinu prozesua abiatu dau. Lehen faseari ekin deusie dardorduko, hau da, 2008-2012 planaren ebaluazioa osatzeari. Bost lan-mahai osotuko dira eta lan-mahai horreetan arlo bakoitxeko diagnostikoa egin eta hurrengo epealdirako helburu estrategikoak zehaztu eta adostuko dira. **6. orrialdea**

oarquitek@oarquitek.com www.oarquitek.com
O! Arquitek
Arquitectura eta Hirigintza estudioa
Errehabilitazioak
Erreformak
Hirigintza
Informeak
Udal lizentziak
Peritu-azterketak
Zerbitzu integralak
Proiektuak eta obrak
Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (EIT-ITE)
Olaia Ziarrusta Atutxa
Arkitektoa
c/ Juan Bta Uriarte 50, 2 A
48960 Galdakao
652704936

KANTU HERRIKOIAK

ESTUDIANTE KONDENATUA

Estudiantea naz
oraindino gaztea,
hamazortzi urte be
kunplidu bagea.

Hiru pezeta zala
kartazko jokoa,
bertan hilde itxi neuen
estudiante majoa.

Hau zen kalabozoa
ilun eta triste,
ni hona sartu nintzela
diradez hiru urte.

Pozik egin lezake
beste harenbeste,
libratzeko esperantza
baldin bagenduke.

Ama, gure dau berorrek
ni libradutea,
heriotzea egin dot
ez da posiblea.

Atzo etorri jatan
arriba gaztea,
lastima emoten dautsela
ni holan ikustea.

Ai ene Jaungoikoa
kanpaiaren hotsa!
Iguar ixingo da
urkamendikoa.

Hau de urkemendiko
haxearen hotza!
Gure Jaunen aurrerako
nik daukedan lotsa!

Estudiante kondenatua



Iturria: Patxi Bilbao Etxebarria (Dima 1903-Lemoa 1992).

1983an, Diman, Karmen Bernaolak jaso (Labayru Ikastegiko Ahozko Artiboa).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara

Maiatzaren 28tik bagilaren 3ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 4tik 10era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano

Bagilaren 11tik 17ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Oihane Barrenetxea, Urtzi Barrenetxea, Cristina Ruiz, Irati

Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alai Ozerinjauri eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Merezi ote?

Azkenaldi honetan arratier baten kantuaren letrea etorri jata burura: "merezi ote bakarrik egoteak? Geroan ere bakarrik egoteko".

Hausnarketa hau, azkenaldian Igorreko kirol eta kultur taldeak jasaten daben egoerearen ondorioa baino ez da.

Guk, Arratiko Zekorrek Rugby Taldeak, azken urteotan jasaten gabizen jarrera eskasagoaz berba egin ahal dogu. Rugby ekin-tzetatik kanpo hamaika ekintza desbardin antolatuten doguz edo beste hamaikatan parte hartzean. Nire eretxian, hau holan izan beharko litzateke, baina Igorreko Udalaren jokaerearen ondorioz herriarentzako behar egitearen planteamentu hau aldatuteko puntuan gagoz.

Azkenengo urtea bakarrik kontuan hartzean bada, kiroldegiko gimnasioa erabilteari itxi deusagu, San Txisme rugby ze-

laiko aldagelai erabilgarriak izateko asko falta jakie (nahiz eta guk erabili), Rugby zelaiko argiak ez dira nahikoak, eta abar luze bat.

Baten batek esan leike daukaguzan gabeziak aurkeztu ezker, konponbidea daukiela, baina udalean jakitun dagoz eta ez deuse konponbiderik emon.

Hau guztiau esanda, edozein kirol eta kultur taldek betebeharrak batzuk daukazala esan beharrik ez dago, baina eskubideak bebadaukaz. Bai batzuek eta bai besteak beteko baleitezke, ez jatan burura etorriko holango kantarik.

Kirol eta kultur taldeak jagoten ez badira herri ekintzak egiteko jentetik ez da egongo eta bide hau segidu ezker, Igorreko Udala bakarrik geldituko da.

Merezi ote bakarrik egoteak? Geroan ere bakarrik egoteko.

UNAI ZULUAGA
ARRATIKO ZEKORRAK RUGBY
TALDEKO PRESIDENTEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BERITUK@eskubidea.dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Dindirria



Dingilizka, edo jausteko moduan dagoan zezer da dindirria. Likidoak leituten diranean, argazkiko ur leituaq berbarako, kandlearen forma hartzean dabe; orio- edo ezti-tantakadeak be dindirriaren antzeko itxurea daukie. Ehun eta oihal generoetan (ohe-azal, manta edo hainbat jantzitan) dingiliz ikusten diran apaingarriak, hari soltuak eta, dindirriak deitzean deusegu.

ERETXIA

Burokratak gaixotasuna minimizau gura dabe



Mª BEGOÑA
GORRITXO KORTA

Esklerosi sistemikoa daukat, 1997tik hona gitxienez. Diagnostikoa orain dala gitxi egin eusten: 2008an, Gurutzetako Ospitalean.

Beti esaten dot loteria tokau jatala, baina alderantzizkoa. Eta loteria hori ez da aukerakoa; danok jokutzen dogu, salbuespen barik. Holan ba, lerro honeen bitartez, nire egoerea ezeze -ez da bakarra-, zalantza eta ziurbakotasuna be konpartidu gura dot.

Nire gaixotasuna arraroen barruan dago. Arraroa izateak esan gura dau "kasu gitxi" dagozala. Gainera, nire gaixotasuna autoimmunea da: ez da kutsakorra, askok kutsakorra dala pentsau eta nigandik iges egiten daben arren.

Ezaugarri bi horreek definituten dabe nire gaixotasuna, esklerodermia, eta interneten konsultau leitezke. *House* telesailan be aitatzen dabe; beraz, esango dodan bakarra da progresiboa dala, ezgaitu egiten zaituala eta ez dala osatzen. Batez be, digestino-aparatu osoa, gibela, azala eta begiak (begietako hipertensioa) kaltetu deustaz, zirkulazio aparatuko esklerosia dalako. Nire gorputzeko atal askozaz gehiago be kaltetuta daukadazalakoan nago, baina ez deuste esaten, eta hori da nire gaixotasun mardikatu honen beste parte bat.

Geuk egon behar dogu adi, eta gorputzean ezer igarri ezker, espezialisteari esan behar deusagu, denporea urregorria dalako eta kaltetzen dana ezin leitekela konpondu. Kontu bi horreek aintzat hartu ezik, gure bizitzak ez dauala ezer balio eta dirua daukienak baino ez dabela bizitea merezidu onartuko geunke.

Ez dogu isilik egon behar, mina daukagunean esan egin behar dogu. Preguntau egin behar dogu, eta medikuai euren zeregina bete daien eskatu. Ez dogu etsi behar. Gaixotasuna ukatzea gure osasunaren, gure bizitza-kalidatearen eta gure eskubideen kontra joatea da, baita gure familiakoen eta hurrekoen kontra be; gaixotasuna ukatzeak ezintasunera garoazan prozesua bizkortzen daualako, eta horrek kostu sanitario eta ekonomiko handiak be badakarz. Orain behar dogu errehabilitazioa, oraintxe bertan: fisikoki indepen-

dienteak garan bitartean.

Errehabilitazioari esker, eskuetako mobikortasuna berreskuratu dot, eta, holan, ia-ia "normaltasuna" be bai, 2005ean sano kaltetuta neukazan arren, guztiz handituta, *Raynauden* Fenomenoaren erruz (esklerodermiak dakar hori). Ondo dakit ze min dakarren gaixotasun horrek, eta minak norainoko inpotentzia eta menpekotasuna eragiten dauan, eta burruka egiten dot nire gaixotasunaren prozesua minimizau gura daben burokraten kontra: ondotox dakit hori guztiori, bai, eta, hasteko, ez dodaz hatzamarra galdu gura. Nire gorputzak ez dau ezer jakin gura burokrata horreen ganean, eta hareen inprimaki, lege eta mehatxuen aurretik dago. Hainbeste ordenau gura dabe gure bizitza "euren gustura" ze, holan segidu ezker, egunen baten gure espezieko emeen ziklo hormonalak Foru Agindu bidez kontrolatan ahaleginduko dira.

Adi egon behar dogu, eta gure gorputzaren beharrianai begiratu: beharrian sinpleak eta ekologikoak dira azken baten.

Eta kontuan euki Zizeronek zer esan eban: "Egia guzurragaz bestean usteltzen da isiltasunagaz".

Holako gaixotasuna izatekotan feder.pv@gmail.com-era jo.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea Iuzua, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrian beharrez, euskeraz eginez

Euskeraz Batz en gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN

XABIER PEREZ
DE MENDIOLA"Azkar bizi,
gazte hil eta
gorpu ederra
itxi"

Ez, ez da publizitate kanpaina baten leloa, James Deanen aipu sonatuen bano. Dana dan, era horretako mezuek, etenbarik ailegetan jakuz bost zentzumenetan zehar. Egungo publizitatea aparta da, baina aparta bezain perbersoa eta hutsala. Pack berean, produktua eta bizimodu bat, doban, emoten deuskuez. Bizimodu erakargarri, arrakastatsu eta arriskutsua. Hareen esanetan, arrisku handiena, ez arriskatzea ei da eta. Bi, baten truke. Zelan errefusatu holango aukerea?

Blaise Pascalen eretxian, giza-kion zoritxar guztiak, kondizino bakar baten ondorio dira: gela

baten, lasai, atsedean hartuteko ezintasunaren ondorio. Berezko ezinegon, artegatasun, sosegu falta edo desio asegaitz horrek, hainbat buruhauste eta gaitz sortu deuskuz historian zehar, konsumismoarena esaterako oraintsu. Publizitatearen helburua, hain zuzen, pulstino primitibo hori erakartea da, bare-tuko dauan berehalako dibersinoia eta zoriontasuna eskeiniz. Aldi baterako poztasun hauskorra. Drogak sortuten dabenaren antzekoa, adiktiboa oso eta aitaturako konsumismora bultzatuten gaituana. Aurrezki-libretetatik kreditu-txartelara salto egin dogu. Xahututea da, gure mendeko trebetasunen artean zabalduena; dirua, zerbitzuak, baliabideak, hartu-emonak xahututea.

Kontua da, zorionez, probabileena ez dala James Dean, Kurt Cobain edo Amy Winehouse anti-heroiak gertatu dan lez, hogeita hamar urtera ez iristea. Probabileena, hiru aldiz gehiago bizitea da: Euskal Herriko bizi-itxaropena 80 urte inguruan dago eta. Aititama osasuntsuak gainezka dagozan zaharren egoitza oparoai erreparatzea nahikoa da horretaz jabetuteko. Beraz, gozamina lortuteko eta errealidade tragikotik iges egiteko, altematiba seguru eta iraunkorren beharizana dago, *carpe diem* jasangarriago batena alegia. Akaso, garai bateko eta urteotan aitzutako, balio tradizional batzuk berreskuratuteko momentua da: familia, sakrifizioa, esku-zabaltasuna, fedea... Bizitza arin igaroten da, baina ez horrenbeste.

ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

Karamelu begiak ditu parean eta, beti bezala, ezagutu zituen egunaz gogoratu da. Bi begien ordezkari karameluak eta, bien artean, ile xerlo gaztinkara bat. Eskatu egin zuen haienganako zubia nola zeharkatu behar zen jakitea, erregutu ukitu eta bere aurrean ez itzaltzea, desiratu bertan itotzea.

Ez da harrezkero haiengandik urrundu.

Hiru urte.

Enbor sustraiak baino lotuago hasieratik eta, orain, galdera egin dio. Ezpainak mugitu dituela iruditu zaio, ahoskatzen ahalegindu dela. Baina begiek egin dute galdera, heze, aho barrunbeetan ibili diren gozokiak balira legez. Horixe pentsatu du: mingain eta hortz artean jolasean izan dituzula dirudi. Eta bere buruari galdetu dio gozokiak bukaeraino izaten ote

Karamelu begiak

dituen jolasean ahoan ala pazientzia azkarregi agortu eta, sartu berritan, hiru hagin kolperekin zatitzen dituen.

Eskumuturretatik heldu, aurreratu eta berriz egin dio galdera. Egin diote. Begiek. Karameluek. Erraz du erantzuten, baina laburra da erantzuna. Laburregia.

Hiru urte.

Beste pauso bat hurbildu dira. Ukalondoetatik oratu du oraingoan. Ez eskumuturretatik bezala; gogorrago. Hain dago hurbil, karameluen barru azalak ikus ditzake. Hirugarrenez egin dio galdera, dardara betileetan.

Begi haietako ezagutu zituen eguna gogoratu du. Nola pentsatu zuen karameluzkoak ziruditelako eta nola eskatu, erregutu, desiratu zuen.

Duela hiru urte.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Txooooootx! Sagardoaren denporaldiari agur esan geuntsan apirilaren 21ean zeanuriztarrok Makeako lagunak batera. Ez deutsegu agurrik esan aspalditik bizirik dagoan gure arteko hartu-emonari oster. Sagardo, kantaldi, makailau, jantzaldi, menbrillu, argazki, intxaur, istorio, txuleta, barre, gaztai... artean 40 lagun inguru batu ginan Hernanin, erlazino indartutako asmoagaz. Oraingoan erdi-bidean geratu bagara be Makeako jaietarako konbitea luzatu jaku eta gu zelan ez, joateko prest. Gogotsu eta ondo pozik joango gara herriko zahar zein gazteok.

Makearrok: uztailean elgarrekin izanen gira, bitartean izan untsa!

Irati Urien




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosti.cl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinikoa Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bizkaia
T. 94 631 30 39

Halegaitz 2, behea, 110
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

IGORRE

Mila kilometro eta gehiago Igorreko sanantonioetan

Oraindino udabarria amaitu barik, Igorreko San Antonio jaiak uda giroa dakarkue erromeria eta kuadrilen desafioakaz. Aurtengo nobedaderik handiena, Intxaurbizkar kultur alkarteak antolatu dauan *Euskeraren alde 1000 km baietz* ekimena da. "Erronka bat da: igorretarrak euskerearen alde 1000 km baietz egin. Gune bi egongo dira, bata AZ tabernan eta bestea paellak egiten diran lekuan eta gune bi horreen artean km bat dago. Parte hartzaileei txartel bat emongo jakie eta batetik bestera doazen baktokxean erregistroa egingo da" azaldu dabe antolatzaileak. Bagilaren 9a euskereari eskeiniko joko eta udaletik "euskeraz bizi gura dot" kamisetea jantzeko konbitea egiten deutsee igorretarrai.

Euskerearen aldeko eguna izango da bagilaren 9a.

IGORRE
Jai batzordeak eta Igorreko Udalak
Gora San Antonioak!
JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

Erredakzinoa

Bagilak 3, domekea

11:00etan, tximindularitza XXVIII. San Antonio saria Bizkaiko Txapelketea kadete maila.

Bagilak 8, barikua

15:00etan, bazkaria baktokak etetik ekarritakoagaz txosna gunean. Euria egiten badau udaletxeko arkupetan.
16:00etatik **18:30**era, Zaztaparrak txupina botatekoan sorpresa presaketeta. 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat, txosna gunean.
17:00etan, gazteen arteko olinpiadak.
18:00etan, gaiteruak eta Larrain jantza.
19:00etan, txupina.
20:00etan, kuadrilen olinpiadak.
20:30ean, kalejirea Eskandalue elektrotxarangeagaz
23:30ean, Zu Bai Zu! Talentu lehiaketea.
24:30ean, DJ sorpresa.

Bagilak 9, zapatua

09:00etatik **21:00**etara, *Euskeraren alde 1000 km baietz!!* Intxaurbizkar kultur alkarteak antolatuta.
12:00etan, paella txapelketea Olabariko zirkuituan. Mahaiaik eta sillak norberak eroan.
14:30ean, paellen aurkezpena.
16:00etatik **18:30**era, Zaztaparrak "Euskeraz jolastuz danok aberastu" Kultur Etxeko parkean.
16:00etan, Bizkaiko Rugby Zazpi Kopa. Andrak eta gizonak.
16:30ean, Igorreko jaietako XXII. Pelota txapelketea.
18:00etan, gazteen arteko olinpiadak.
18:30ean, kuadrilen arteko olinpiadak txosnagunean Lurrarin Gazte Asanbladak antolatuta.
20:00etan, Luis Iruarizaga, Gordexolako Isasiko Ama Abesbatza eta Santutxuko Euskaria. Kultur Etxean.
23:00etan, kontzertuak Tapakubos, Enkore, Stupenda Jones. Gero, erromeria Garraxi taldeagaz.

Bagilak 10, domekea

10:30ean, tximindulari lasterketea Bizkaiko eskolak.

12:00etan, mezea.

17:30ean, Mihiluze. Eskolakoak.

Bagilak 11, astelehena

18:00etan, spinning Kultur Etxeko plazan.
19:00etan, futbito txapelketea.
19:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleen entzunaldia, kamara kontzertua Kultur Etxean.

Bagilak 12, martitzena

Egun guztian Arratia truke, truke merkadua.
17:00etan, umeen karaokea.
18:00etan, frontenisa udaletxeko frontoian.
19:00etan, eskaladea bulderrean.

Bagilak 13, eguztana

11:00etatik **13:00**etara, Zuresku eta umeentzako puzgarriak.
11:00etatik **19:00**etara, txu-txu tren a AMEK antolatuta.
12:00etan, mezea.
16:00etatik **18:00**etara, Zuresku eta umeentzako puzgarriak.
19:30ean, Arantzarte jantza taldearen emonaldia goiko frontoian.

Bagilak 14, eguena

17:00etan, umeen play-backa, udaletxeko frontoian. Eguraldia txarra bada Kultur Etxean
18:00etan, triki-poteoa txosnetan hasita.
21:00etan, herri-afaria eta karaokea Olabariko aterpean.

Bagilak 15, barikua

17:00etan, trotila eta makailao txapelketea. (mahaiaik eta sillak norberak eroan).
19:00etan, tortilla txapelketearen aurkezpena eta AMEK amantalak emotea Olabariko zirkuituan.
19:30ean, makailao txapelketearen aurkezpena Olabariko zirkuituan.
22:00etan, kontzertuak Hortzikarak eta Narko. Gero, erromeria Izargi taldeagaz.

Bagilak 16, zapatua

13:00etan, II. Mendi bizikleta lasterketa herrikoia Orobin.
17:00etan, pelota jaialdia.
17:00etan, Igorre eta Garaiko ugerketa taldeen lagun arteko lehiaketea.
17:30ean, umorezko rallya txosnagunean hasita.
22:00etan, kontzertuak Eskean eta Obrint Pas. Gero erromeria Trikizio taldeagaz.

Bagilak 17, domekea

12:00etan, mezea.
14:00etan, jubiladuen bazkaria eta karta txapelketak: mus, tute eta briska.
16:30ean, gazteen arteko olinpiadak.
19:00etan, Jokaldi AMEK antolatuta. Bitartean, kuadrilen arteko olinpiaden sari banaketea, jaietako erifen zozketea eta AMEren eskutik Athleticen kamisetearen zozketearen irabazleari saria emotea.
19:30ean, bals lehiaketea.
20:00etan, AMEren eskutik jai amaierako txokolata.

ZEBERIO

Jokoak eta musikea Ermitabarrin

Erredakzinoa

Zeberioko Ermitabarrin San Antonio jaiak ospatuten dira. San Antonio eguna eguaztana da aurtengo eta kopautxo egongo da ermitearen inguruan egun horretan, baina hurrengo astegienean izango dira ospakizun gehienak.

Egitaraua

Bagilak 9, zapatua

16:00etan, Zeberioko III. Lur Slalom-a.

Bagilak 13, eguztana

13:30ean kopautxo.

Bagilak 15, barikua

18:00etan, txupina.
18:30ean, pelota partiduak.
21:00etan, sardina jana.
22:00etan, rock jaialdia: Punto muerto, Estupefacientes, Juanpeed, Tapakubos eta Bidean Galduta.

Bagilak 16, zapatua

11:30ean, taldeka "Joko Olinpikoak".
12:30etik **14:30**era, puzgarriak.
13:30ean, triki-poteoa.
14:30ean, herri bazkaria.
16:00etatik **19:00**etara, puzgarriak.
17:30etik **19:30**era, umeentzako poniak.
17:30etik **20:30**era, Ugaoko Gazte Asanbladearen batukadea.
17:30ean, bola jokoa.
19:30ean, herri merienda.
20:30ean, La Orkestra.
23:00etan, erromeria Obaneuke.

Bagilak 17, domekea

12:00etan, albokariakaz kalejirea.
12:30ean, pato lasterketea.
13:00etan, Arratiako trikitaliak.
13:00etan, ugel txapelketea.
14:00etan, Zeberioko jantza taldea.
18:00etan, mariatiak Real Azteca taldeagaz.
20:00etan, argazki lehiaketako sari banaketea.
20:30ean, errifa zozketea. Saria: bazkaria edo afaria Areatzako bainuetxean eta zirkuitua.

Argazki lehiaketako kartela.

ARRATIA

Erosleak arraindegietan tupperwareak erabiliteko kanpaina bat abian

Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak abian ipini dau hondakin solidoen prebentzinorako kanpaina bat, Prebentzio Azokak izenekoa. Kanpaina honetako akaso ekintzarik deigarriena da Arratiako arraindegia kupoi batzuk bananduko dituela tupperware ekologiko batzuk eskuratzeko. Gero, arraina erosten tupper honeek erabili eta holan erabilten dan plastikoz guztia aurreztu gura dabe.

Kanpainearen helburua sortzean dogun hondakin kantidatea gixitzea eta sortzean dogunaren berbera bilpena sustatzea da, mankomunitateko iturrien arabera.

Azokan plastikozko boltsak

ahalik eta gehien ebitauz erosketak egitea da Prebentzio Azoken helburua.

Informazino karpak

Kupoiak aldatuten eta informazino emoten ibiliko dira mankomunitateko begiraleak Arratiako herri guztietan. Horretarako karpak ipiniko dabez eta hurreraten diran guztiai erosketak egiteko boltsa bat emongo deutsee. Karpak 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara egongo dira zabalik. Zeanurin eta Ubiden bagilaren 11n egongo dira, Igoiren 12an, Lemoan 15ean, Bedian eta Arantzazun hilaren 18an, Areatzan 19an eta Artean 20an.

UBIDE

Gazte Eguna bagilaren 2an

Irati Urien

Ubideko Gazte Eguna ospatuko da bagilaren 2an, zapatuan. Goiza triki-poteoagaz hasiko da. 15:00etan

bazkaria egongo da, eta ostean mus txapelketea. 20:00etatik 22:30era pintxo-pote. Gauean, lau kontzertu egongo dira: Bidean Galduta, Kilauea, Zoramena eta Nik Khaos taldeakaz.



ZEANURI

Oroko Santutegia Gorbearen bi aldeetako herrien alkargune

Jon Urutxurtu

Maiatzaren 20an ospatu zan Asentsio jaia Oroko Andra Mariaren santutegian, Zuiako haranean (Araba). Egun hau antxinatik berezia izan da Gorbea mendiaren bi aldeetan dagozan herrietan. Gorbea inguruko Bizkaiko herrietan, esaterako Zeanurin, Ubiden, Orozkon... ohiturea zan oinez joatea Oroko santutegira eta eguna jai giroan igarotzea. Gai-

nera, bizkaitarrak ziran Oroko Ama Birjinaren eta San Antonio eta San Isidoren irudiak prozesinoan ateraten ebezanak; horretarako peregrinoen artean lehia egoten zan ia irudiak nok atera, eta meza aurretik santutegira heltzean ziran lehenengoak painelua lotzean eben irudiaren andetan eskubide hori erreserbetako. Asentsio eguna bizkaitarren eguna zan eta hurrengo domekea, Pentekostes eguna, arabarrena.

AREATZA

Euskerearen erabilera suspertzeko logo lehiaketeta

Erredakzinoa

Areatzako Euskera Batzordeak logo eta lelo lehiaketeta antolatu dau herrian euskerearen erabilera bultzatzeko kanpaina bat egiteko. Logo eta leloak bagilaren 23a baino lehenago aurkeztu behar dira udaletxean. Lehiaketaren sari bakarra 200 eurokoa izango da.

Logoak papelean eta artxibo digitalean aurkeztu behar dira. Logo eta leloak A4 formatuan aurkeztu behar dira eta edozein teknika erabili daiteke. Leloak esaldi batekoa izan behar dau. Udalak nahiz Euskera Batzordeak logoa argitaratu eta erabiliteko konpromisoa hartzean dau. Epaia bagilaren 24an emongo da.

ARTEA

Arteako gazte bat hil da auto istripu baten

Erredakzinoa

Arteako 20 urteko J.G.E. mutil gaztea hil zan maiatzaren 22an, lurretan, gidatzen eban autoak kamioi baten kontra jo ebanean. Istripuaren ondorioz, gidaria autoan harrapatuta geratu zan. Suhiltzaileak atera behar izan eben autotik, baina medikuak ezin izan eben ezer egin gaztearen bizia salbetako eta bertan hil zan. N-634 kaminoa itxita egon zan hainbat orduz noranzko bietan.

Intera baten ohitura hau oso sustraituta egon zan Gorbea mendiaren inguruko Bizkaiko herrietan eta baita Zeanuriko auzune batzuetan be, esaterako Ipiñaburur, Altzuan, Otzerinmendin edo Uriben. Apurka-apurka indarra galtzean joan bada be, oraindino badagoz gaur egun aurrekoen lekukoa hartu dabenak. Holan, joan dan maiatzaren 20an, bederatziz personak osotutako taldeak egin eban oinezko bidea Zeanuritik Ororaino. Orora heldu, mezea entzun, baina meza ostean, eurien eruz, aurten ezin izan ebezan atera santuen irudiak prozesinoan santutegitik kanpora.

AREATZA



Andrak gelan.

Andren gela propioak zabaldu ditu ateak

Erredakzinoa

Areatzako Emakumeen Txokoak ateak zabaldu eutsezan andrai maiatzaren. Bertan, hainbat alkartek daukie lekua batzartu eta euren lana aurrera aterateko.

Hormetan Virginia Woolf, Adrienne Rich, Maria Zambrano eta Nawal El Saadawi-en erretratuak dagoz eta laster Clara Campoamorrena be egongo da. Andra handi horreekaz batera, Arratiako emakumeen mendian martzen argazkiak, Foroko taldekideak Marcela Lagardezag egindako tailerrean (2011), eta Arratiako andra batzuk Madrilko "Librería Mujeres"en. Herriko maioret taldea, tanborradako andrak eta tistularien argazkiak be badagoz andren txokoan eta dokumentala amaitutakoan "herriko historian inportanteak izan diran andren argazkiak ipiniko doguz" dino Sara Gutierrez Areatzako Bardintasun zinegotzi eta Foroko partaideak. Batzarretarako mahai handi bat, dokumentazino gordetzeko apalak eta modu informalean berba egiteko sofak be baditu Areatzako Emakumeen Txokoak.

Areatzako Emakume Foroak urteotan sortutako dokumentazino,

publikazino eta abar gordetzeko gela bat beharrezkotzat jotzen eben partaideak "Foroak bost urte daroaz lanean hainbat arlotan. Alde batetik udaleko Bardintasun Arloak eskatu dauzan plan, diagnostiko, eta abarren diseinuan laguntzen eta ekarpenak egiten: II. Bardintasun Planaren diseinuan, Urbanismoa genero ikuspuntutik eraikiten... Eta bestetik, Foroak berak, edota beste Arratiako andra taldeak antolatzen dauzen programak eta ekintzak egiten (martiaren 8 eta zemendiaren 25eko programak Arratian, berbarako). Gainera, Foroko taldekideentzat presakuntza saioak eta tailerrak antolatu dira" dino Gutierrezek.

Maiatzaren amaitu ziran gela barrira egokitzeko lanak, eta Foroak jada batzar batzuk egin ditu bertan. "herrian dagozan andra talde, edo hobeto esanda ekintza konkretu bat egiten daben andra taldeai konbitea luzatu jakie. Batzar gela edota txokoa erakutsi deutsegu, eta euren batzarretarako gura dabenean erabiliteko eskeini jakie".

Konbidautako taldeak honeek dira: maioret taldea, eskulan talde bi, yoga taldea eta kirol inguruan lanean dabizanak.

habia arkitektura monika agirre zamakona
Tif. 690 18 16 42
Proiektuak - Obra zuzendaritza
Zaharberritzeak - Igogailuak
ITE - informeak
Aholkularitza teknikoa
Jarduera proiektuak
Administrazio tramiteak
www.habia-arkitektura.com
Zure neurria egindako proiektu eta aurrekontuak

Kendall Languages
- A, B eta C perfil linguistikoen lortzea Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginez
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea
Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

EUSKAL HEDABIDEEN ETORKIZUNENKAK

Hedabideen sektorearen "kimu berdeak" tokiko hedabideak dira

Euskal hedabideen mundua ondo ezagutzen daben hiru aditu batu zituan Zertu Kultur Elkarteak Lemoan, bere 10. urteurrenaren ekitaldietako baten.

Erredakzioa

Han Martxelo Otamendi, Berria egunkariaren zuzendaria, Mikel Irizar Topaguneako presidentea eta Maria Gonzalez Komunikazioan Doktore Europarra egon ziran euskal hedabideen erronken gainean eztabaidatzen. Mahaian, Iban Gortazar be egon zan konbidauak aurkezten eta modera-tzaile beharretan.

"Urte bi gailurrean eta ora-in... euskal prensaren hileta zerbitzuak"

Martxelo Otamendi izan zan hizlarien artean panoramea baltzen ikusten ebana. Txantxa bategaz hasi eban bere berba egiteko txandea. "Gaur euki dot tertulia bat arrastian eta esan deusat hango moderatzaileari mahai-ingurua daukadala Lemoan eta harek itaundu deusta: -zeren gainekoa?

eta nik:
-hileta zerbitzuen gainekoa.
-hileta zerbitzuak?
-Bai, euskal prensaren hiletan gainekoa".

Otamendiren ustez, bi dira euskal prensaren mugak. Lehenengo muga, txikia dala euskaldunon komunitatea, 800.000 hiztun inguruk osotuten dabe-eta, "eta ez dago gure esku hori aldatzea". Beste muga bat tradizio faltea da. "Euskerea beti berandu heldu da euskarri guztietara: 50 urte pasau ziran

lehenengo liburua inprimidu zanetik euskerazko lehenengoa inprimidu zan arte, egunkarietara ia 200 urte berandu heldu zan, irratira 60 urte eta telebistara 40 urte berandu. Dana dala, tarte hori txikitzen joan da eta internetera atzerapena urte 2koa baino ez da izan". Baina orain, interneteri, teknologia barriai, eta teknologia horreek eskuratu dituan belaunaldiari esker, "munduan gertatzen dan guztia, euskeraz jasoten dogu segiduan".

Holan, sasoi onak bizi izan ditu euskal prensak, baina "iritsi garanean, urte bi gailurrean emon eta krisi hau!". Kazetaritza aldatu egin da eta internetek gero eta pisu handiagoa dauka informazioa jasoteko moduan. "Papeletik pantailarako iraultza oso azkar joan da, gurean be bai, baina negozioa papelean geratu da. Etorkizuna baltza bada hedabide handientzat, baltzagoa 800.000 herritarreri zuzendutako hedabide batentzat" esan eban Otamendik.

Dana dala, "etorkizuna ez da oparua negozioaren aldetik, baina kimu berdeak egon badagoz".

Tokiko hedabideak kimu horreetako bat

Mikel Irizarrek hartu eban berbea kimu berdeen metafoerari helduz. Honen ustez, tokiko hedabideetan dago esperantzarako kimu bat, "momentu egoki baten gagozala dirudi: inork ez daki



Lemoako mahai-ingurua.

Gonzalez: "Txikitasuna ahulezia baino, indar izan daiteke"

Irizar: "Papela ez da desagertuko. Hedabide bakotzak funtzino bat eukiko dau"

norantza goazen eta euskerazko tokiko hedabideak bedar moztzean ibiltzen ohituta gagoz eta alkarlanerako eta gizartearen kohesinoarako egiten dogu behar".

Holan, Topaguneako tokiko hedabideak Tokikom enpresea sortu dabe etorkizunari alkarlanen aurre egiteko. "Tokikomeko presidentea naz eta hurretik segiduten dot saltsa hori. Hausnarketa prozesu bat abiatu dogu, eztabaidak, tailerrak eta abar eta gurako geunke toki hedabideetatik ikuspegi bat euki, gure artean adostu samarra, nondik nora dabizen kontuak jakiteko" esan eban Irizarrek.

Tokiko hedabideak Tokikomen inguruan antolatutea da honen helburuetako bat. Gero, hedabi-

de "nazionalak" dagoz (Berria, Argia, irratia batzuk eta beste hedabideak...). Horreekaz batera, herri ekimeneko euskerazko hedabideen diagnostiko bat egin eta diagnostiko hau Eusko Jaurlaritzan aurkeztu dabe. "Eta hortik alkarte bat sortuko da alkarregaz behar egiteko" esan eban Tokikomekoak.

Beraz alkarlanen egingo deusie aurre tokiko hedabideak egoerari. Dana dala, Irizarren ustez, digitalidadean egongo da aurrera egiteko gakoa. "Horixe izango da informazioaren enborra, baina papela ez da desagertuko. Informazio inportanteena aterako da papelean modu sakonago baten. Hedabide bakotzak funtzino bat eukiko



dau" ondorioztatu eban.

Kalidatea oinarri eta ez helburu

Maria Gonzalez Gorasarrik euskal hedabideen testuinguru eta ikuspegi propio baten beharraz egin eban berba. "Informazioa ez da neutroa, testuinguru baten dago. Hedabideen erantzukizuna da gauza bat zergaitik gertatu dan esatea eta informazioari aurre egitea eta

potereari neurria ipintea hedabideen jardurea da" gogorazo eban.

Lurraldetasun kontzeptua, EITB eta Berriaren sorrerako dokumentuetan agertzen dala esan eban eta hori holan izan zala 2003an, beste albiste eredu bat nagusitu zan arte. "Orduan inflexino puntu bat egon zan. Eta gaur egun, munduko edozein natur hondamendik ETBko albistegia zabaltzen dau. Estadu Batuetako tomado batek zabaldu

ahal dau Euskal Herriko albistegi nagusia" esan eban Gonzalezek. Albisteen erdiak baino gehiago Euskal Herrikan kanpokoak dira eta "euskaldunoi ez deuskue eragiten". Horrek ekarri dau tokiko albistek euskerazko hedabideetan jeistea, euskerazko kazetaritzak informazioa sortzeako gaitasuna galtzea eta hedabideak agentzien menpe geratutea.

"Ikuspegi nazionala emon be-

harko geunskiola tokiko informazioari" ondorioztatu eban ikerlariak.

Bertako informazioa kalidateko informazioa emoteko gaketat jo eban Gonzalezek. Testuinguru emon eta zergaitia azaltzea ezinbestekoa da kalidateko informazioa emoteko. "Eta hori ezinezkoa da agentzia batek bialdutako hurroneko irudiakaz. Euren ikuspegitik jasoten dogu gertatutakoa. Bertoko informazioa emotean, barriz, geure

ikuspegia emon ahal dogu, klabeak ezagututa".

"Nik txikitasunari bueltea emon gurako neuskio eta esan txikitasuna ahulezia baino indar bat izan daitekela. Horregaitik tokiko albisteen irakurketa nazionala egingo leuken hedabideak geure euskalduntasuna hedatuko leuke eta euskaldunon arteko alkar ulertzea eta alkar ezagutzea. Baita albisteen aniztasuna be".

Euskal Hedabideetako Hiru Haundi

Euskal Hedabideetako Hiru Haundi batu ziran Lemoan. Martxelo Otamendi, Mikel Irizar eta Maria Gonzalez Gorasarrik hedabideen erronken gaineko eztabaidari ekin eutsien, Berria egunkariaren, Tokikomen, eta mundu akademikoaren ekarpenak ekariz.

Hiru Haundi honeek nor diran jakiteko, hona hemen euren ibilbide profesionalaren zertzelada batzuk.

Maria Gonzalez Gorasari

Zuzenbidean lizentziatua eta Kazetaritzan lizentziatua da. Komunikazioan Dokore Europarra "Albisteen kalitatea: Euskadi Irratia, Etb1 eta Euskaldunon Egunkaria-Berria" Dokorego Tesiari esker. Tesi hau EHU eta Alemanian idatzi dau azken lau urteotan.

Aurretik, Topagunea Euskara Elkarten Federazioko Hedabide Saileko sustatzailea eta komunikazio-arduraduna izan zan. Komunikazio-arduradun moduan UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) eta Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresuan jardun eban.

Kazetari legez, ordea, Anboto astekarian eta Anboto Irratian (Durangaldeko Herri Komunikabideak) ibili zan, zenbait hedabideetan kolaborau izanaz gain (Argia, Aizu!, Euskaldunon Egunkaria...).

Bere ikerketa-lerro nagusiak, alde batetik, "albisteen kalidatea" eta, bestetik, "oroimen historikoaren genero ikuspegia" izan dira. Azken horregaz lotuta, *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidamos* liburuaren egilea da, Saturrarango espetxearen inguruko.

Mikel Irizar

Topaguneako presidente da Mikel Irizar aurtengo apiletik.

Aurretik, Gipuzkoa Donostia Kutxa erakundean Gizarte Ekintzaren birantolaketaren gidaria eta Kutxa Fundazioa erakundearen Zuzendari-ondokoa izan zan, eta lehenago Gipuzkoa Donostia Kutxa erakundean Hizkuntza Plangintza eta Bame Komunikazioaren arduraduna.

Kazetaritzeari jagokonean, Argia aldizkarian kolaboratzaile, Rikardo Arregi kazetaritza sariari epaimahaiko kide, Euskadi Irratia emisoraren tertulietan ereti-emoile, Debagoieneko toki hedabideak bateratzeko sortu zan Goiena egitasmoaren arduraduna eta izen bereko kooperatibaren lehen Zuzendari Nagusia izan da. Baita, Topagunea federazioko Komunikabideen Batzordeko kidea be. ETB telebistaren bi kateetan emon ziran *Hitzaro* eta *Lengua Viva* saioen aurkezlea, eta Arrasate Press eta ATB kudeatzeko sortu zan Arrasate Komunikabideak (Arko) alkararen lehendakari fundatzailea be izan zan, besteak beste.

Martxelo Otamendi

Berria egunkariaren zuzendaria da gaur egun.

Euskaldunon Egunkariaren zuzendaria izan zan 1993tik 2003ko zezeilaren 20an guardia zibilak Audientzia Nazionalerako epailearen aginduz zarratu eban arte. Martxelo Otamendi eta beste 9 lagun atxilo hartu zituen ETAgaz kolaboretea egotzita. Akusazio horreetaz absoldidu ebezan 2010ean.

Aurretik be, Martxelo Otamendik euki eban hartu-emona euskal hedabideakaz. Izan be, Egin egunkarian 1984an hasi zan idazten eta 1987tik 1989ra, ETBn ibili zan beharrean.

Etorri haur eta gazteentzako erakusketa barriak ikustera!

bonodekor
20%
deskontua
descuento

MUEBLES
alberto
DECORACION

www.mueblesalberto.com
Gernika kalea, 3 eta 5
Galdakao
94 456 79 79

ALBERTO
diseño

BIZIKLETEA

Txirindularitza egokitua Igorren bagilaren 2an

Erredakzinoa

Oskar Garro igorretarrak eta bere lagun taldeak txirindularitza egokitua erakustaldia antolatu dabe bagilaren 2rako. Arrastiko bostetan izango da Igorreko Urbietan futbol zelaiaren inguruko bidegorrian. "Umeen-tzako jolasak be egongo dira eta bizikletan joaten diranak oparia izango dabe" dino Oskar Garro txirindulari eta antolatzaileak.

Erakustaldian, hiru talde egongo dira: profesionalak, Oskar Garro bera eta bere taldea be egongo dira han; trizikloa erabilten daberen kirolariak, "txirindularitza eskolak emoten deutesdaz garun paralisia daukien gazte batzuei eta hareek be izango dira hilaren 2an Igorren. Zortzi bat etorriko dira" dino Garrok. Eta umeak.

Saiatu Fundazinoko txapel-dunak

Txirindularitza egokituan txapelak jantzi dabezan txirindulariak egongo dira Igorren. Oskar Garrok igaz Euskal Herriko Itzuliaren paracycling zirkuitua irabazi eban eta brontzezko domina Espainiako txapelketan. Eta etortekoak dira Rikardo Josu Moreno trizikloan Espainiako txapelduna, eta Rakel Mateo Espainiako txapelketan, zidarrezko domina irabazi dauana.

BIZIKLETA MARTXEA

Iban Mayo VII. martxa zikloturista



Martxearen kartela.

Erredakzinoa

Iban Mayo Lagunarteak bagilaren 2rako Iban Mayo martxa zikloturistearen zarpigarren edizinoa antolatu dau. Urteerea goizeko 09:00etan izango da Igorreko kiroldegian eta helmugea be bertan izango da txirindulariak 119 km egin ostein. Izen emotea egun

berean egin daiteke 08:30 arte. Parte-hartzaileen geheinezko kopurua 400 lagunekoa izango da.

Ibilbidea hau da: Igorre-Arantzazu-Igorre-Lemoa-Zornotza-Galdakao-Larrabetzu-Morga-Muxika-Gernika-Durango-Izur-tza-Mañaria-Abadiño-Otxandio-Zeanuri-Areatza-Artea-Arantzazu-Igorre.

MENDIA

23 arratiarrek emon dabe izena Hiru Handietan parte hartzeako

Erredakzinoa

Urte birik behin Manuel Iradier alkarteak Hiru Handiak mendi proba antolatuten dau. Aurten bagilaren 2an izango da. Parte hartzaileak Gorbeia, Anboto eta Azko-rriara igongo dira eta 100 km. egingo dabez. Desnibela 9.800 m.koa da.

Aurten norabidea aldatu dabe. Aureko urteetan Gorbeia tontorra izaten zan mendizaleak zapal-zen eben hiruretako azkena, baina aurten lehenengo izango da.

"Ibilbidea aldatu dabe eta horrek beste zailtasun bat dakar, niretzat behintzat. Alderantziz egiten ohituta nengoan" azaldu deuto BEGURI Josune Ibagutxik, parte hartuko dauan ubidezarrak. Hirugarren al-dia izango da Ibagutxik proba go-gor honetan parte hartzean dauala. Eta aureko bietan osorik egin eban. "Aurtengoa ikusteko dago. Nik,

dana dala, ilusino handia daukat" dino ubidezarrak.

Parte hartzaileak gaueko 00:00etan urtengo dira Ondategi/Gopegitik. Gorbeia tontorra 1:15 eta 2:30 artean zapalduko dabe eta Ubidetik 02:00ak eta 04:45 artean pasauko dira. Proba Araian amaituko da 24:00etan beranduen.

Arratiarren zaletasuna gora

Gehenez 1.500 kirolarik hartuko dabe parte Hiru Handiak iraupen proban. Aureko aldian, 2010ean, 1.512k emon eben izena eta ia erdiak amaitu eben, 711k hain zuzen be.

Aurten, hogeta hiru arratiarrek emon dabe izena eta Ubideko Amexier Mendi Taldea eta Ubideko Udala dira laguntzaileak.

Arratiatik hogeta hiru lagunek parte hartzea positibotzat jo dau Ibagutxik. "Nahikotxo dira, zaletasuna dagoan seinale" dino.



Orain dala urte biko Hiru Handiak.

ZEKUTZE
SATETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - BIZKAIA
Tel.: 94 631 52 83
zekutze@zetxe.com

indar
Instalazio elektrikoak

Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es ■ www.indarsi.es

CERRO ERAIKUNTZAK

Behoko suetan, harrietan, azulejoetan... aditua.

Tel: 605 71 64 17
Erreforma orokorrak

Dia %

PEDRO AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagari) Tel.: 94 430 40 94

Esposizinoa eta fabrika Lemoan

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

KINMI KOPIDENDA MAIONE RAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE
BIZKAIA
Tlf: 94 612 02 41
Fax: 94 612 02 46
kinmikopi@gmail.com

AKETEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONSTRUZIOEN
ONDARUN BEGIZTATZEN
ASIGURATZEN

Sabino Arana, 3-34 94 673 71 41 - Fax: 94 673 71 41 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 34
Igorre 48140 Bizkaia

☎: 94-673-70-87
☎: 609-79-40-54

axular
KULTUR ARLOAN

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASORIKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@construccioneseekin.com

Pinturas Anatia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MARATOI TXIKIA

Gotzon Solaegi eta Iraia Garcia txapeldun XXXIII. Maratoi Txikian

Erredakzioa

Gotzon Solaegi eta Iraia Garcia izan ziran Arratiako Maratoi Txikiaren irabazle absolutuak. Dana dala, edade guztietako jenteak hartzean dau parte Arratia Ikastola eta Arratia Institutuak antolatuten

daben proba honetan eta kategoria bakotzak bere irabazleak izan zituan. Eguraldiak lagundu eban eta sano partaidetza handia egon zan, 369 atleta etorri ziran ez Arratiatik bakarrik, Bizkaiko leku askotatik: Muskiz, Portugaleta edo Basauritik, barbarako.

Aikomen, irabazleok: Zeanuri-Igorre Nagusiak

Andrak: Iraia Garcia.
Gizonak: Gotzon Solaegi.

Beteranoak (1900-1962 artean jaiotakoak)

Andrak: Jone Etxebarria.
Gizonak: Patxi Ros.

Gazteak (1973-1994)

Gizonak: Xabier Gonzalez.

Artea-Igorre 1995-1999 jaiotakoak

Nesak: Olatz Arce.



Maratoi Txikiko irabazleak.

PELOTEA

Igorreko Zilaurren-Gomez bikoa San Trokaz trinkete txapeldunak



Zilaurren eta Gomez beste irabazleakaz batera.

Erredakzioa

Maiatzaren 20an, Abadiño

Tornosolo trinketean San Trokaz txapelketako finalak jokatu ziran eta Igorreko Zilaurren eta Go-

mezek promesa mailako txapela jantzi eban.

"Zilaurren eta Gomezek behetik gorako txapelketea egin dabe eta finala izan da euren lehiarik onena. Trinketean egiteko dohaiak badituela erakutsi dabe" dinoe pelota federazinokoak.

Igorrekoak Zugadi eta Iturberen kontra jokatu eban finala 24-30 irabaziz.

Bizkaiko Txapela Dimako Zapiko eta Barrenetxea pelotarietzat

Dimako Txumluxueta pelota eskolako Kimetz Zapiko eta Oier Barrenetxeak Bizkaiko txapela jantzi eban maiatzaren 19an gaztetxo mailako finalean Zaldibarko bikoari 13-18 irabazi ostean. Eta Euskadiko XXI. Eskolarteko Kirol Jokoetan bigarren geratu ziran Araba gairiditu eta Gipuzkoaren kontra galdu ostean.

Mutilak (1998-1999): Egoitz Aretxaga. Mutilak (1995-1997): Alain Erauskin.

Dima-Igorre 2000tik 2003ra jaiotakoak 5. eta 6. maila

Nesak: Zuriñe de la Fuente.
Mutilak: Wogen Hoyos.

3. eta 4. maila

Nesak: Irati Artaraz.

Mutilak: Oier Medina.

Igorreko Olabarriko zirkuitua

2004 eta 2005n jaiotakoak
Nesak: Nora Buron.
Mutilak: Ugaitz Aguado.

2006tik 2009ra jaiotakoak

Nesak: Elene Bernaola.
Mutilak: Martxel Erdozia.



Partaide batzuk begitu 10 urte kamisetagaz.

begitu 10 urte
arratia ubide zeberio

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA GORBEIALDE
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

BICIS 46
Arratiarren zindoa
BICISOBIZI
Tel. 94 631 31 30
jorram@cordevi.es
C/Agirre Mendilak 12

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

expert ARRATIA
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

DANERIK

Iturriaga, Maia eta
Arzallus Diman

Erredakzioa

Prieto Lagunarteak bertso bazkaria antolatu dau Diman hilaren 2rako. Zazpigarren edizino hone-tako bazkarian Unai Iturriaga, Jon Maia eta Amets Arzallus egongo dira kantuan. Txartelak Dimako Herriko Tabernan eta Igorreko Gau Loran dagoz salgai.

Hau ez da izango baina aste-goien horretako ekintza bakarra. Izan be, Eskolako kultur astearen amaiera eta II NekazalPunk Dima be izango dira hilaren lehenengo astegoienean.

Barikuan, bagilak 1, hasiko dira ekitaldiok. Umeentzako Monda Lironda pailazoen ikuskizuna izango da lehena, arrastiko 17:30ean Gaztetxean. Zapatuan, barriz, goizeko 11:00etatik hasita azokea eta umeentzako tirolina eta tailerrak egongo dira. Eguerdian, herri kirolak: 13:00etan andren desafioa -lasterketea bikoteka- esku pelotea eta aizkorea eta Dimako sei herritarren arteko desafioa ikusteko aukerea egongo da.

Bazkal aurretik triki poteoa, eta bertso bazkariaren ostein, 17:00 futbolin txapelketea eta 19:00etan kontzertuak Gazte-

txean: Puta Kaska, Porco Bravo, Karretera Agropokuaria, Poliputos, Rombos Negros, Bunker, Penados Por La Ley, El Lobo de Armañon, Izan Ezean, Kruders, Maldita Sea, El Mal Del Pan, Txapa&Pintura, DJ GUS. Hurrengo egunean, domekan, goizean umeentzako puzgarriak eta bits jaia egongo da.

Bertso bazkariaren inguruko jaia prestatzen, herriko hainbat eragilek hartu dabe parte. Halan holan, Gazteteak, Guraso alkarteak, Dimako Bertso Eskoleak, Luis Prieto Lagun Taldeak, Dimako Eskoleak eta Dimako Udalak.



Bertso bazkariko kartela.

ERROMERIA

Erromeria "ekologikoa" Egiriñaon

Erredakzioa

Oinak kantuz diskoa mendiz mendi aurkeztuten dabil Aiko eta bagilaren 3an, Gorbeian egingo dabe aurkezpen hori. Hori dala eta, "erromeria ekologikoa" antolatu dabe Egiriñaon. Mendi-

goizaleak 09:00etan batuko dira Pagomakurren kurutzera igoteko, besteak 11:30ean Egiriñaora igoteko. Erromeria 13:00etan izango da. Eguraldia euritsua izan ezker bertan behera geratuko da erromeria. Jatekoa eta edatekoa eroan behar da.



Aikoren disko barria.

URRUZUNO

Maialen Madariaga Arteakoa aipamenduna
Urruzunotarrak gehituz ekimenean

Erredakzioa

Krisi ekonomikoaren eraginez, aurtentzen Urruzuno lehiaketea ez antolatu ebatzi eban Eusko Jaurlaritzak urtailean. Lehiaketearen ordez eta hareri segida emoteko ekimen barri bat antolatu dau, Urruzunotarrak gehituz izenekoa. Lehiaketea deitzean ez danez, irabazlerik be ez dago eta "aipamenduna" deitzean

deutsle epaimahaikoak lanik onena egin dauanaren egileari.

Aurtentzen epaimahaik lan onenatzat jo dauana bere kategorian Maialen Madariaga Arratia Institutuko ikasleak aurkeztu ebana izan da, "Negar artean baina bai" izenburuduna.

Ipuina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak argitaratuko dau, baina aurtentzen, irabazleak ez dabe biajerik

egingo. Horren ordez, prestatze egonaldi baten alkartzeko aukerea izango dabe aipamendunak.

Arratia idazle harrobia

Honegaz, hiru urtetan jarraian irabazi dabe Arratiako Institutuko ikasleak Urruzuno saria. Igaz Elena Bermudez Arteakoa irabazi eban eta orain dala urte bi Nastia Atutxa Zeanurikoak.

MATEMATIKA

Arratia Institutua
olinpiada matematikoaren
lurreldekakoan

Erredakzioa


Arratia Institutuko Uxune Kantalejok eta Eneko Aldeiturriagak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatuten dauan Eduardo Chillida Olinpiada matematikoaren lurreldekako aldirako sailkatu ziran. Bilbon DBHko beste ehun bat ikaslegaz neurtu ziran maiatzaren 12an.

Irabazi ez arren, Karmele Angoitia irakaslea pozik agertu zan sailkatu izanagaz. Izan be, ez dira asko honetarako izena emoten daben IESak, "gehienak ikastetxe

pribaduak izaten dira" dino.

Olinpiadako buruketak egite-

ko logikea gehiago erabili behar dala dino Uxune Kantalejok. "Matematikaren beste ikuspegi bat da, entrenigarriagoa eta ludikoagoa eta buruketen aurrean ikuspegi apur bat barritzailea behar izaten da. Kurrikuluetik kanpo dagoz buruketa honeek" azaldu deutso BEGURI Karmele Angoitia irakasleak.



Eneko Aldeiturriaga eta Uxune Kantalejo.

EUSKAL EZKONTZA

Euskal Jaiak euskal ezkontza
izango dau gaitzat

Erredakzioa

"Lemoako Euskal Jaiak urte bakoitzean gai bat izango dau eta aurtentzen euskal ezkontza izango da" azaldu deutso BEGURI Esti Carracedo Lemoako kultura teknikariak. Ezkontza ordu batetan izango da San Inazio ermitan. "Abadeak bikotea ezkondu ostean bazkaria izango dogu. Dana antzetzuta, baina herriko kuadrilak izango dira protagonistak" dino teknikariak.

Udaletik deia egiten deutsee herritarrai baserriar jantzita parte hartzeako. Ezkontzaz gainera pelota partiduak eta erromeria be egongo dira Euskal Jaian.

Egitaraua

Bagilak 2, zapatua

12:00etan triki poteoa (Jubila-

duen tabernan hasita).

13:00etan ezkontza San Inazio ermitan.

13:15ean Durundi Barri Dantza Taldearen ekitaldia San Inazon.

13:30ean paseoa ezkonbarriakaz.

14:30ean bazkaria Arraibin.

18:00etan pelota partiduak kiroldegian.

19:30ean triki poteoa Elizondan (Atxeta tabernan hasita).

22:00etan erromeria Elizondan.

Euskal ezkontza

Ekainak 2



Bagilaren 2an izango da Euskal Jaia Lemoan.

ERAKUSKETEAK

Herriko muga eta mugarririk ikusgai erakusketa baten

Zeberriko Austarri Mendi Taldeak, Zubialdeko Kultur Etxean, herriko mugetatik zeharreko ibilbidea erakusten duan erakusketea antolatu dau. 1889ko udal dokumentu baten oinarrituta, herriko mugarrizketea erakusten da, argazkiak, planoak, maketa bat eta mugarri batzuk bitarteko dirala.

Erredakzioa

Zeberriok hamar herri ditu mugakide eta 195 mugarri ipini zizala agertzen da dokumentuan. Zeberriko mugak 33 km.ko perimetroa osotuten dabe.

"Orain dala 25 urte, 1889ko dokumentu bat topau genduan udaletxean, "Deslinde y amojonamiento de la jurisdicción de la anteiglesia y valle de Ceberio". Han, norenak ziran lurak eta mugarrizketea agertzen dira. Sarasolarako bidean daukagu lehenengo mugarria eta bertan agertzen da "Ceberio" eta urtea 1889. Metro bi daukaz mugarri honek. Mugarri bakotzak bere zenbakia dauka. "A la distancia de 445 metros y siguiendo la misma dirección en la cúspide del monte Untzeta se puso el número 2" irakurten da dokumentuan eta holan mugarik muga" azaldu deutso BEGITURI

Kepa Perez Urraza Austarrikoak.

Balio historiko eta kulturala
Erakusketak balio historiko eta kultural handia dauka. 1510. urteko mugarrizketea jasoten duan dokumentuaren kopia be badago bertan, eta "gure historiaren sei mende luzeetako lekuko mutuak baino zerbaist gehiago dira, balio kultural ordezkazina daukie" mugariok Austarrikoen berbetan.



Zeberriko mugak.

Erakusketan, partikular batek itxitako harribolak be erakusten dira. Untzeta puntan egoan gazteluaren defentsarako erabilten ei ziran honeek. Dana dala, "harribolak lotuta ipuin interesgarri bat dago, jentilena. Trumoiak eta ziranean, umeai, ez ikartzeko, jentilak harribolak alkarri botaka edo bolajokoan dabizela esaten jakie" dino Perez Urrazak.

UEU

UEUren 40. udako ikastaroak martxan

Erredakzioa

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) udako ikastaroen 40. edizioa ospatuko dau aurton. Urteurren gazi-gozoa izango da; izan be, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ebatzi dau Onura Publikoko kultur alkarte honek euki duan zuzeneko dirulaguntza-partida osoa kentzea.

Halanda be, UEUk formazino eskeintza interesgarri eta zabal osatu dau aurtengo udarako. Azkeneko urteetan lez, hiru egoitzatan izango dira ikastaroak: Ei-

barko Markeskoa jauregian, Baionako unibersidadean eta Iruñeako Jaso ikastolan.

Guztira 40 ikastaro emongo dira, zazpi alorretan bananduta: Arteak-Musika, Giza zientziak, Gizarte zientziak, Ingenieritza-Teknologia, Osasun zientziak eta Zientziak. Danak bagilaren 26tik garagarriaren 18ra arteko epean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza ikasleentzat

Bizkaiko Foru Aldundiak matrikula eta mantenu gastuen % 100eko diru-laguntza eskeintzen deutse unibersidade ikasleai, bai eta unibersidade-ikasketak amaitu eta lan barik dagozanai. Eskatu baino lehenago, matrikuletan diranak bakotxaren udaletxean galdetu behar dabe udako ikastaroetarako diru-laguntzarik dagoan.

Informazino gehiago UEUren webgunean: www.ueu.org.



UEUko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik da.

DUNBA

Zulaibarreko ikasleak praktiketan



Praktiketan dabilen ikaslea.

Praktiketako tutorea

Urtero lez, Zulaibarreko bigarren

mailako ikasleak Arratia inguruko enpresa (Batz, Araluce, Izar, Iker-tek...) eta eskoletan praktikak

egiten dabiz. Sano pozik dagoz euren lanpostuetan, urte bitan ikasitakoa praktikan ipinten, egunero zerbaist barria ikusten eta ikasten.

Ikasleen eretxiak entzutean gehien aitatzen dabena talde lanean oso eroso dabizala da. Taldean egindako lana eurentzat be baligarria dala eta bakotzak bere buruarengan konfidantza euki daikela ikustean asko pozten dira ikasleak.

Era guztietako eretxiak dagoz: PCPI edo Lanbide Hastapeneko ikasle batek "aurten Eskola Graduata atera dot, eta udarako behar egiteko hartu nabe. Urrietan erdi mailako zikloa egingo dot" kontetan dau. Erdi Mailako beste ikasle batek, Goi Mailako ziklo bat egingo dauala dinosku, gauza gehiago ikasi eta beharra topetako aukera gehiago izateko. Goi Mailako ikasle batek barriz, datorren ikasturtean unibersidadera joango dala dino. Neskak mekanizazino edo produkzioaren programaketa zikloa egitera animau gura ditu ikasle batek eta mutilak beste ikasketak batzuk be egitera. Eta beste ikas-

le batek "praktikak egin eta gero 6 hilabeterako kontratua egingo deuste" dino.

Enpresetako eta eskoletako arduradunak be sano pozik dagoz ikasleak daukien beharrerako eta gauza barriak ikasteko gogoia ikusita. Formakuntza egokia jasota Arratiako enpresetan badago lan munduan nondik ibili, eta lana be badago.



BATZ aurrean ikasleak.

AGENDEA

**BAGILAK 1
DIMA**

17:30ean Monda Lironda pailazoak Gaztebean.

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa.

**BAGILAK 2
AREATZA**

08:00etan, Parkebeak antolatuta Ibinako karst-ari itzulita Parkebean.

DIMA

12:00etan, mezea San Blas ermitan eta trikitiexa.

Bertso bazkaria eta nekazalpunk. 11:00etan azokea eta tailerrak. 13:00etan herri kirolak: andren desafioa, pelotea eta aizkorea.

17:00etan, futbolin txapelketea. 19:00etan, kontzertuak.

IGORRE

09:00etan, Iban Mayo martxa zikloturistea kiroldegian.

17:00etan, txirindularitza egokituaren erakustaldia futbol zelaiako bidegoman.

22:00etan, zinea *Los diarios del Ron* Lasarte Aretan.

LEMOA

12:00etan hasita Euskal Jaia. Gaia: euskal ezkontzea. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

UBIDE

02:00etatik 04:45era, Hiru Handiak mendi lasterketea pasetan da.

12:00etan, Gazte Eguna. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**BAGILAK 3
AREATZA**

Aikok antolatuta, Egrinaon erromeria.

09:00etan, Corbeiaiko kurutzera igoera

Pagomakurretik urtenda. 13:00etan, erromeria Egrinaon.

BEDIA

Ganguren antolatuta Arteta (Corbeia).

IGORRE

11:00etan, txirindularitza XXVIII. San Antonio saria Bizkaiko Txapelketea kadete maila.

17:00etan, umeentzako zinea *The wish fish* (gurarien arraina). 19:30ean, zinea *Los diarios*

del Ron Lasarte Aretan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Lizartzu (793 m)-Abulegi (617 m).

ZEANURI

12:00etan, San Urban ermitan mezea eta barauskarria.

**BAGILAK 4
BEDIA**

17:00etatik 20:00etara, eta hilaren 8ra arte Sanjuanetan txosnetan laguntzeko izen emotea.

**BAGILAK 5
LEMOA**

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dala eta, tailerrak ludotekan.

IGORRE

19:00etan, zabor bilketa eta kudeaketaren inguruko solasaldia. Mikel Huizi Garbiker enpresako gerentea eta Irati Portu Garbitaria enpresako teknikaria. Kultur Etxean.

**BAGILAK 8
IGORRE**

San Antonio jaia 17ra arte. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**BAGILAK 9
AREATZA**

23:00etan Jabier Mañon umoristea Bixer tabeman.

DIMA

09:30ean, Andraizeak andra taldeak antolatuta, Balentziaga museora urteera.

IGORRE

09:00etatik 21:00etara, *Euskeraren alde 1000 km* baietz egin Inbaubizkar kultur alkarteak antolatuta.

ZEBERIO

San Antonio jaia Ermitabarrin. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**BAGILAK 10
BEDIA**

08:00etan, tren biajea Kantabria eta Enkarterrietara. Bediako plazan.

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta I. urteera Bizkaia mendirik mendik.

**Arteako II. Martxa Zikloturistea hilaren 17an**

Arteako Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak II. Martxa Zikloturistea antolatu dau. Bagilaren 17an izango da eta parte hartu gura dabenak 09:00etan batuko dira plazan. Bi aukera egongo dira 90 km. edo 107 km. eta ibilbidea hauxe izango da: Artea-Zeanuri-Artea-Dima-Legutio-Gopegi-Altube-Orozko-Bikotxgane-Artea.

"Igaz 125 txirindularik hartu eben parte eta aurten, eguraldia ona bada, kopuru hori gainditzea espero dogu" azaldu deutso Imanol Agirre antolatzaileak BEGITURI.

ZEBERIO

Austarrak antolatuta Castillo Acher-Quimboa.

**BAGILAK 11
LEMOA**

11:00etatik 14:00etara, eta hilaren 22ra arte, Jubiladuen biajea izena emoteko epea zabalik.

Udaletxean. Biajea umi lehenengoaren 28tk umi bigarrenaren 7ra izango da.

UBIDE

10:00etan, Prebentzio Azokak kanpainako karpea

plazan.

ZEANURI

10:00etan, Prebentzio Azokak kanpainako karpea plazan.

**BAGILAK 12
IGORRE**

10:00etan, Prebentzio Azokak kanpainako karpea udaltxean eta Bidebarrin.

LEMOA

Hilaren 21era arte, 2012-2013 ikasturteko

informatika eta mekanografia ikastaroan izena emoteko epea zabalik.

**BAGILAK 15
LEMOA**

10:00etan, Prebentzio Azokak kanpainako karpea Arrabin eta Intzuntzan.

**BAGILAK 16
DIMA**

06:00etan, errogatibea Urkiolara, plazatik urtenda.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
SALGAI**

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behera (Igorre).

DANERIK**ETXEA ALOKATU GURA DOGU**

Alokatzan dan baserri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

TXAKURRA GALDU DA

Txakurra baseritik eskapadau da katea apurtuta eta falta handia asmetan dogu.

Topau ezker, ipini kontaktuan BEGITUGAZ.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, lokalak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz.

Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

**ETXKO BEHARRAK ETA
ZAINTZAK**

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kobxeduna.

Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

LOKALA GURA DOGU

Igorren alokairuan dagoan lokala gura dogun gazte taldea gara. Ahal dala erdigunean. Deitu 662 964 716 telefonora.

LEKU BILA

Txakurak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Aiko taldeak emondako Oinak kantuz CD bana.

Aitor Esteban (Zeberio)
Yazmina Beobide (Areatza)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Los diarios del Ron filmarako.

Igor Menika (Arantzazu)
Arantza Aldekoa (Artea)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Amaiera. 2.- Berrogeta hamar erromatar. Bikotx. 3.- Mantenidu. Bokala. 4.- Bizkaiko herria. Txinpart. 5.- Tratulari. 6.- Hitzordua. Gibxi falta. 7.- Erdiko bokala. Kontau. 8.- Adio. Letra bat. 9.- Ezpala.

GOITIK BEHERA

1.- Galderetan erabiltzen da. Bihardamu. Boroa. 2.- Konsonante bat. Josteko behar da. Emea ez dana. 3.- Erlijinoan, aita. Portale. 4.- Azkartasun. 5.- Jarduna. Berba-alkarketan, ardi. 6.- Nori atzizkia. Azkar. Azken letra. 7.- Bokala. Leinua. Umeen berbetan, mosua.



Topau Europako zazpi uriren izenak.

S	A	T	U	R	N	E	M	O	Z
I	N	E	D	O	A	B	U	K	A
X	O	L	A	F	O	R	I	A	N
I	P	A	R	I	S	E	D	U	K
Z	A	R	B	E	V	O	I	G	U
U	L	I	A	M	O	G	H	A	Z
T	A	R	S	G	I	A	E	R	O
A	R	K	I	L	A	J	U	B	A
V	I	E	L	A	N	B	M	E	R
G	O	T	E	B	O	R	G	R	I
O	Z	I	A	R	U	Y	I	G	O
S	A	Z	K	U	N	B	E	A	L
E	R	N	I	L	R	E	B	Z	U
T	A	K	R	O	A	N	K	A	I
O	I	E	H	Y	M	E	O	S	D

AKMIKO

Igorren Menika



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoa
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tlxoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

Bar Restaurante Montero
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

***KIRRU* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietan 3-48330 LEMOA, Biskaiak
Tel. 659 482 830 fax 659 296 727

begitu¹⁰ urte
presta gure eskutik

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Bobbi • Ray • Aranda
• Anx • Gutsuiter • Arandaga
• Guadale • Leiz • M. S. S. S. S. S.
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 48140 IGORRE
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baleonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 23
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@coavn.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karnela eskolaraz zein erdaraz
Gabe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 34 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unakau@euskalnet.net

BIDEAN GALDUTA TALDEA

"Bidean Galduta rockaren bila"

Bidean Galduta musika taldea 2010eko garagarilean sortu eben Jokin Uriarte lemoztarrak (ahotsa eta gitara) eta Endika Parra igorretarrak (gitara). Institutuko sasoian goatu eutsien proiektu honeri, ilusinoz beterik, eta ilusino horrek gora eta gora egin dau, taldekideen joan-etomien gainetik. Orain gogotsu ekin deusie BEGUREN 10. urteurrenaren kantea egiteko proiektuari. Hain zuzen be, Endika Parra asmatuko musika oinami hartuta egin dabe lana, Arratiako beste musika taldeakaz batera alkarlanean; eta poz-pozik dagoz lortutako emoitzeagaz. Horreek kontuak eta beste hainbeste esan euskuezan Igorreko Udalak itxi deusien ensaio gelara bisitea egin geuntsanean. Umoretzu, alkarrizketea hasi aurretik, Endikak argi itxi gura izan eban gauza bat, eta holan esan euskun: "Ezer baino lehen, jakizue, nire bizitza pribaduaren gaineko galderarik egin ezkeru, ez dodala ezer esango". Barreak izan genduzan lagun alkarrizketa osoan.

Erredakzioa**Hasteko, derrigor egin beharreko galdera bat. Zelan sortu zan taldea?**

Endika: Egia esan, Tuenti bitartez. Jokinek esan eustan Berri Txarrak gustetan jakola eta... Kontau daijala berak!

Jokin: Bistaz ezagutzen genduan alkar, eta nire kuadrilako batek esan eustan Endikak gitara jotzen ebal. Orduan Tuenti bitartez egin genduan berba musikari buruz, eta abesti batzuk joteko parau ginan, beste barik, buruan ezelangor helbururik euki barik

oraindino... Holan segidu genduan aldikada baten, baina laster konturatu ginan batera eta bajjstea behar genduzala.

Eta zelan topau zenduezan? Sare sozialak izan ziran bidea barriro be?

Endika: Ez, ezagutzen genduan jenteezagaz egin genduan berba. Eta aldaketa batzuk egon badira be, ia hasieratik Unai Uriarte lemoztarra izan da bajjstea (atzerrian ikasten egin dauz hile batzuk eta bagilean bueltauko da). Bateria, aldiz, fitxaje barria daukagu, Zomozako Mikel

Muesas; astebete baino ez daroa taldean.

Lehenengo, bersinoak jotzen hasi zinien, batez be Berri Txarrak taldearenak. Noiz heldu ziran zuen abestiak?

Endika: Bersinoak jotzen hasi arren, bageunkazan guk egindako abestiak.

Jokin: Egia esan, Endikak ordenadorean eukazan eginda, eta gelditu egin ginan abesti horreek ensaietako eta letrak gehitzeko.

Martian Deian zuoi egindako alkarrizketea argitaratu zan, eta kazetaria harrিতuta egoan ez daukazuelako kejarik instituzinoak eskeintzen daben laguntzearen inguruan. Arratian musika-kultorea bultzatzen dala esan geinke, beraz?

Jokin: Bai. Lokalak Igorreko Udalak ixten deuskuz. Instrumentuak eta ekipoak geureak dira, hemen ensaietan dogun taldeonak, baina lokalak debalde izatea asko eskertzen dogu. Arratiatik kanpoko herri batzuetan, taldeak ordaindu egin behar izaten dabe gelak erabili ahal izateko. Guk, aldiz, 100 euroko fiantzea ordaindu behar izan genduan hasieran, eta giltzak emon euskuezan, gura dogunean etorri gaitzean.

Endika: Hemen ensaietan daben beste taldeakaz berba eginda, geure artean lotuten doguz ordutegiak. Alde horretatik, suerte handia daukagu! Gero, kontzertuak emotea be erreza

da Arratian, gaztebetean eta jaietan batez be. Arratiatik kanpo topetan doguz arazo gehiago kontzertuak lotuteko.

Beste pausu inportante bat maketea grabetea izan zan. Noiz egin zenduen?

Endika: 2011ko uria eta zemendia bitartean grabau genduan. Gero, lagun artean saldu doguz batez be, baina gure asmoa da aurrerantzean kontzertuetan eskeintzea.

Jokin: Onena da maketea egitearen ondorioak igari doguzala. Geuk sortutako kantak joteak beste ezerk baino gehiago beteten gaitu, eta jenteari gustetan bajakoz, ba, pentsaizu. Dimako kontzertuan, azkenerako itxi genduan maketako lehenengo abestia, onenarikoa, eta jentea kantetan hasi zan... Gure abestia! Ez Berri Txarrak-en "Oreka", ez! Geurea!

Eta badozue beste ezer grabetako asmorik?

Endika: Bai. Pentsauta daukagu uda ostean diskoa grabetea. Daukaguzan abestiak landu behar doguz, eta barriak egin, eta udan irabazten dogun dirua diskoa egiteko erabiliko dogu.

Diskoa egitea lortuten badozue, zer eskuratuko dau zuen diskoa erosten dauanak? Ze estilo topauko dau bertan?

Jokin: Ez dakit. Abesti bakotxa diferentea da. Rocka egiten dogu, hori argi dago, baina rockaren barruan etiketa asko dagoz...

Eta zein da zuena?

Jokin: Ba gu gara... BG rocka! Estilo barria, Bidean Galduta rocka! (Barre egiten dogu, Jokinen ateraldiagaz). Ez, oraindino ez dogu lortu; baina hori da helburua, hori da ametsa. Disko bat egin gura dogu, 10-12 abesti, eta jenteari entzutea eta pentsetea: "rocka da, baina badauka bere ikutua". Beste talde batzuk inoiz egingo ez leukiengan abestiak sortu gura doguz guk. BG rockaren bila gabiz, estilo propioaren bila. Eta, zentzu horretan, nik uste dot BEGUREN abestiagaz beste pausu bat emon dogula. Abesti diferentea da, originala, badauka zeozer...

Abesti horren sorkuntza kanpotik bizi izan dogunok ikusi dogu sano giro polita sortu dala proiektuan parte hartu dozuonen artean.

Jokin: Interesanteena da juntau garan guztiok estilo diferenteak daukaguzala. Horrek abestia aberastu dau, joko emon dau.

Endika: Eta abestia oso landuta eta oso ondo pentsauta dago. Ez bakarrik estilo ugaritasunagaitik, edade desbardineko jentea egotea be oso aberasgarria izan da. Ordu asko emon doguz ensaietan, ekarpenak egiten, gauza barriak probetan... eta horrek gure artean hartu-emon berezia egotea ekari dau. Irrikan gagoz abestiaren grabazioa amaitzeko eta kopiak zabaltzeko. Jenteari gustauko jako, hori seguru.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.